

# Urretxindorra ta sai zuria

Kanta kantari ziarduan urretxindorrak, tantai-kukutzean. Baiña etsaiak ditugu nai-noz, inguruan. Mirotz batek ikusi eban, ta kantariari zapuztetik oraturik, samea biurtu nai eutsan.

Txoritxoak, estu ta larri, onela itz egin eutson:

—Zu gose aunditan zagoz, ene mirotz, ta nire aragi urriñak ezingo dau ezelan be, gose ori asetu. Zegaitik zati gizenagoetan indar ori ez saiatu?

Mirotz edo sai zuriak erantzun eutson, poz-irri gaiztoz:

—Tenteltzar ederra nintzake ziur, erpe artean daukadana itxirik, luzaro be, bear bada, eskuratuko ez neukanaren billa asiko ba'nintz...

Ederto diño, bai, esakun zarrak:

«Txoria eskuan,
bat-bat bera be,
eun egazka baiño
nok ez dau obe?»

## LAPURRAK

Gau baten, gose zirala-ta, oillotegi batera joan ziran lapur bi; ez eben oillorik aurkitu, oillarra bakarrik, eta au eroan eben.

Oillar gaixoa eriotzara eroien, eta arren bai arren, bizirik izteko eskatzen eutsen; berak, ba, mesede baiño ez eban egiten: gabaz, edozein ordutan gizonak itxartu, ta barrien barriz lanean jarten zituan. Lapurrak jardetsi eutsoen:

—Or ba, zegaitik iltzen zaitugun oindiño pozago; zuk lotan diranak itxartzen dituzu, ta guk ezin egin nai doguzan lapurketa guztiak.

Mundu gaizto onetan
egin ona be
aintzakotzat artzen
danak ez dabe.



## AMUZKIA

Gaztetxo nintzala itxasoan asar ibiltzea gogait eginda, ta-tiñoen berri-lanetan buru-belarri sartzera. Baiña eder yatan irakurtea, bertsolariak batez be: Arrese-Beitia, Otaño, Xenpelar, Txirrita... Ordutan sortu zan nire barrenean olako griña ta zaletasun bero bat; bertsogille izan nai neuk be. Zeregin au, ostera, itxas-arrantzea ta solo-goldaketa baiño geiago yatan nunbait. Porrot egin zori nengoala, bertan jakingarri au aurkitu neban:

«Aundi-naitan ames-laiñoz jarterik
Iñoiz ez dau iñok atera onik;
Arraiñez bete eban Jainkoak itxaso,
Baiña amuzkia zuk bear idoro.»

Lau bertsoko onek —gogoratzeko errexa yatan— ez dakit zelan izin eustan aurrera jarraitzeko bear neban kemena. Luzaro, illabete batzuetan, amuzki billa ibilli nintzan, ta azkenez liburugille bat aurkitu neban, nire lenengo bertso-mordoa argitara emoteko gertu neukana.

Neure ustez idazle betea nintzan ezkero, guztiz eroso nitzezan amestan jartea, beste zeregin barik. Baiña, eten barik ziriketu ninduen zerbait izan ezpa-neu, ez nintzan egundo be idazle punterengo izatera elduko. Begi aurrean neukan lauko txikia, eragille bizkor. Ez dakit oindiño nok egiña dan bertso ori; baiña berari zor deutsat nik, asitako lana azkeneraiño kementsu eroan al izatea.

## EMON

Emakume bat dogo au idatzi dauskuna: «Bakarrik egon nazan egunean, goiertzeraiño bete naz. Bete-beterik nago, erizetatik ura darion ontzi baten antzera. Betetasuna onela bereiztu eban Salmugilleak: «Ene ontziari darios». Ez betor iñor, uste izan dot; bestela, erion-zori nintzake. Au ete, orduan, emakumeari jazoten yakona? Bai, jarion-min da betik. Bere emakume-senak-ume-gizon-gizarte-iñude-ori eskatzen deutso, emon. Bere aldi, indar ta sor-gaitasuna, era datorkion guztian, bide ortatik aten ditu. Berezko emon-bearra darogu barrenean. Emakumeak askoz biziago sentitzen dau emon-bear ori, ta beti dago emoten egarri danari, txangilla eritzeraiño beteteko asti barik. Eta zegaitik ez ortela? Okerrik ba ete daukagu artan, emakumearen zereginña emotea bada?»